

## **2018KO ABENDUAREN 20AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA**

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2018ko abenduaren, 20an, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EHBildu)

Zinegotziak:

- MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- AITOR IBARZABAL BARTUREN jauna (EH Bildu)
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA jauna (EAJ-PNV)
- MARIA BEGOÑA ABIO ZAPIRAIN andrea (EAJ-PNV)
- AITOR APRAIZ IMATZ jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ ANTONIO ABIO ERKOREKA jauna (EAJ-PNV).
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- ALAIN GÓMEZ BILBAO jauna (BAKIOBAI)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI)

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehendakaritzapean honako gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

### **1.- 2018KO ZEMENDIAREN 29AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.**

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2018ko zemendiaren 29an egindako ohiko udalbatzaren akta, eta alkate andreak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori aho batez onartu dabe.

### **2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON.**

Gai honeri hasikera emoteko, idazkariak honako dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

350/2018.- Aurrekontuaren aldarazpena.

351/2018.- Obligazinoen ordainketa onartzea.

352/2018.- Biztanleen udal erroldan baja emoteko espedientea.

353/2018.- Gertek enpresak aurkeztutako likidazinoa onartzea.

354/2018.- Nominak ordaintzeko ebazpena.

355/2018.- Itzulketa bat egiteko ebazpena.

356/2018.- Autokarabanen aparkalekua egiteko obren kontratu txikia esleitzea.

357/2018.- Obra lizentzia emoteko ebazpena.

358/2018.- Fidantza bat itzultzeko ebazpena.

359/2018.- Motor show egiteko baimena.

360/2018.- Obligazinoen ordainketa onartzea.

361/2018.- Haurtzaindegiko aterpeko obren amaiera onartzea.

362/2018.- Bakioko Udala auzi batera bertaratzea eta letratuak eta prokuradoreak izendatzea.

363/2018.- Obligazinoen ordainketa onartzea.

364/2018.- Ondare erreklamazino bat baiestea.

365/2018.- Ondare erreklamazino bat ezestea.

366/2018.- Ondare erreklamazino bat ezestea.

Amets Jauregizar alkate andreak, dekretu honeei buruzko azalpenak emon dauz:

350/2018 dekretua:

Udal aurrekontuaren aldarazpena

353/2018 dekretua:

Udal Idazkariaren txostena kontuan hartuz, Alkate anrde honek, toki araubidearen oinarriak arautzen dauzan legearen 21.1.s) artikulua emoten deutsozan ahalmenak erabiliz, erabagi hau hartu dau:

*“GERTEK, SOCIEDAD DE GESTIONES Y SERVICIOS, S.A.” enpresek aurkeztutako 2018ko bagilari, garagarrilari, abuztuari eta irailari jagoken likidazioa onartzea.*

*GERTEK enpresearen zerbitzuaren txostena eta udal idazkariaren txostena erabagi honeri eranstea.*

#### 356/2018 dekretua:

Kontuan izanik Bakiora urtean zehar etorten diran turista kopurua eta, bidaiatzeko ohitureari jagokonez, autokarabanen erabilera ugaritzen doala, ikusi dogu autokarabanentzat aparkalekua egitea beharrezkoa dala. Horretarako, leku egokiena Bentako aparkalekua dala pentsau da eta obrak egiteko enpresa honeen eskaintza ekonomikoak jaso dira:

OHNER Innovación. 17.619,03 € (PEM).

PROBISA.....14.820,91 € (PEM)

BERMEOSOLO... 21.113,75€ (PEM)

Udal aparejadorearen proposamena aintzat hartuz, obrak PROBISA enpreseari adjudikatu jako, burutzapen epea 4 hilebetekoa izanik eta adjudikazio zenbatekoa, barriz, hauxe: *21.340.63€ BEZ barruan dala (14.820,91€ PEM + G.G y B.I. %19 eta BEZ %21)*

#### 362/2018 dekretua:

Bilboko Administrazioagazko Auzien 5. Epaitegiak, 2018ko zemendiaren 19ko ebazpen bitartez eta 359/2018-C prozeduraren barruan, udal honeri eskatu deutso U.T.E. BAKIO KIROLAK errekurritutako administrazio egintzari jagokon espedienteak; horrek beregaz dakar Bakioko Udalarari deitu izana errekurtsioan demandatutako alderdi modura; eta errekurtsioa iminitako egintza honako hauxe da: *“2018/08/21eko 247/18 Alkatezaren Dekretua, UTE BAKIO KIROLA enpresa merkataritzak egindako eskabidea isiltasun negatiboaren bidez ezeztatzeagaitik”.*

Hori dala eta, Bakioko Udalak erabagi dau 359/2018 -A errekurtsio horretara bertaratzeko eta udal korporazioa defendatzeko eta ordezkatzeko letratuak izendatzea.

**3.- BAKIOKO UDALBATZAK, 2018.09.27AN SR4-SOLOZARREKO EREMUA URBANIZATZEKO URIGINTZA HITZARMENA BEHIN BETIKO ONARTU EBALA-ETA JOSEBA BILBAO ABIOK ETA XABIER GOITIA GARAYK**

## **AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOAK EBATZI, HALA BEHAR BALITZ.**

LEHENENGOA.- Unai San Martín Martínez, Inés Bilbao-Goyoaga Barturen, Lander Momotio Mardones eta Estíbaliz Jiménez Romero jaun-andreek 2018ko bagilaren 18an (1117. sarrera erregistroa) hitzarmen urbanistikoa aurkeztu eben honako helburu honetarako: "Solozarre" SR4 sektorearen urbanizazinarako obren behin betiko burutzapena ahalbidetzeko eta sektore horren konpentsazio proiektuaren 8. lursaila (plan partzailaren SZR 1.1 lursaila) eregiteko betebeharrak eta baldintzak arau eitezan.

Solozarreko sektorean egin beharreko urbanizazio obren aurrekontua jasoten dauen udal aparejadore aholkulariaren 2018ko bagilaren 20ko txosten teknikoa eta udal idazkariaren 2018ko bagilaren 21eko txostena espedienteari erantsi ostean, udalbatzak, 2018ko bagilaren 28an egindako osoko bilkuran, hasikera batean onartu eban hitzarmen hori eta jendaurreko informazioaldian imintea erabagi eban 20 egun balioduneko epean, Eusko Jaurlaritzaren Lurzoru eta Urigintzari buruzko bagilaren 30eko 2/2006 Legearen zazpigarren xedapen gehigarriaren 8. paragrafoan ezarritakoagaz bat etorriz; informazio publiko hori halantxe emon zan eta horretarako beharrezko iragarkiak imini ziran 2018.07.17ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, ediktuen udal oholtzan eta udalaren webgunean.

Informazio publikoaren fasean alegazio idatzi bi aurkeztu ziran, honako pertsona hauek aurkeztutakoak:

Joseba Bilbao Abio  
Xabier Goitia Garay

Hitzarmenaren sustatzaileei entzunaldiaren izapidea emonda (Unai San Martín Martínez eta besteak), honeek 2018ko irailaren 4an beste alegazio idatzi bat aurkeztu eben, Joseba Bilbao eta Xabier Goitia jaunek aurkeztutakoak ikusita.

Horren ostean, udal aholkulari juridikoak 2019ko irailaren 19an txostena prestatu eban, Joseba Bilbao eta Xabier Goitiak eta hitzarmenaren sustatzaileek aurkeztutako idatziei egokenez.

Dokumentazio hori ikusita, udal idazkariak 2018ko irailaren 24ko txostena idatzi eban.

Azken txosten bi horreen edukia ikusita, udalbatzak, 2018-09-27ko bilkuran, honakoa erabagi eban aho batez:

*“LEHENA.- Xabier Goitia Garay eta Joseba Bilbao Garay jaunek aurkeztutako alegazioak ezestea.*

*BIGARRENA.- Bakioko Udalaren eta Bakioko Antolamendurako Arau Subsidiarioetako Solozarre Sektoreko Plan Partzilarren 8. lursileko jaubeen arteko hitzarmena behin*

*betiko onartzea, beti be jendaurreko informazioaldian ezarritakoaren arabera, horren barruan alkatetzak hitzarmenaren bederatzigarren aurrekariaren lehen paragrafoaren ganean egindako proposamena sartuta.*

*HIRUGARRENA.- Interesdun guztiei erabagi honen barri emotea eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udalaren iragarki taulan argitaratzea.”*

BIGARRENA.- Udalbatzaren 2018ko irailaren 27ko erabagi horren kontra berraztertze errekurtsio bi aurkeztu dira; hona hemen errekurtsioak aurkeztu dabean pertsonak:

Xabier Goitia Garay jauna, 2018ko zemendiaren 9an.

Joseba Bilbao Abio jauna, 2018ko zemendiaren 13an.

Solozarre sektoreko 8. lursaileko jaubeei berraztertze errekurtsio biren barri emonda (Unai San Martín Martínez, Inés Bilbao-GoyoagaBarturen, Lander Momotio Mardones, eta Estíbaliz Jiménez Romero jaun-andreak), horreek 2018ko abenduaren 5eko alegazino idatzia be aurkeztu dabe.

Udal idazkariak, 2018ko abenduaren 14an, txostena egin eban Joseba Bilbao Abio eta Xabier Goitia Garay jaunek aurkeztutako berraztertze errekurtsioen ganean.

2018ko abenduaren 14ko udal idazkariaren txostena kontuan hartuz, udal aholkularitza juridikoaren 2018-09-19ko txostenari men eginez eta udal espedientean dagoan generako dokumentazioa ikusiz, Herri Administrazioen Administrazio Erkidegoko Prozedurari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua ezarritakoagaz bat etorri, udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aho batez (korporazioa osotzen daben 11etatik 10), honako hau erabagi dau:

**Joseba Bilbao Abio jaunak aurkeztutako berraztertze errekurtsioa ezestea.**

**Xabier Goitia Garay jaunak aurkeztutako berraztertze errekurtsioa ezestea.**

**Udalbatzak 2018ko irailaren 27ko bilkuran hartutako erabagia berrestea; haren bidez, behin betiko onesten da Bakioko Udalaren eta Bakioko Urigintza Plangintzako Arau Subsidiarioen Solozarre Sektoreko Plan Partzialaren 8. lursaileko (SZR1.1) jauben arteko hitzarmen urbanistikoa.**

José Antonio Abio Erkoreka zinegotziak ez dau parte hartu bozketan, bateraezintasuna dala eta.

**4.- BAKIOKO UDALEAN EUSKEREAREN ERABILKERA NORMALIZATZEKO PLANA ONARTZEA, HALA BEHAR BALITZ.**

Atoan, Amets Jauregizar alkate andreak, hauxe adierazo dau:

*Bakioko Udalak Euskerearen Erabilkerea Normalizatzeko Plana prestatu eta idatzi dau. Ganera, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak begi onez ikusten dau Bakioko Udalak erakunde barruan euskerea erabilteko eta bultzatzeko egin dauan plan-proposamena eta, beraz, planaren aldeko txostena egin dau. Planean euskerea lan eta zerbitzu hizkuntza izateko eta hizkuntza eskubideak bermatzeko helburuak ezarri dira, eta horretarako metodologia be finkatu da UEMAre laguntzaz.*

Zinegotziak UEMAk gai honen inguruan emondako azalpenen jakitun egonik eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak planari emondako oneritxia kontuan hartuz, udalbatzak bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamaika), erabagi hau hartu dau: **Bakioko Udalean Euskerearen Erabilkerea Normalizatzeko Plana onartzea, VI. Plangintzaldiari jagokona (2018-2022).**

## **5.- EUSKEREA SUSTATZEKO EKINTZA PLAN ESTRATEGIKOA (ESEP) ONARTZEA, HALA BEHAR BALITZ.**

Amets Jauregizar alkate andreak, hauxe adierazo dau:

*Bakioko Udalak Euskerea Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) prestatu eta idatzi dau UEMAre laguntzaz eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak udalen esku iminitako aplikazioaren erispideak erabiliz. Planaren helburua da euskerearen normalizazio soziala bermatzeko eta euskal gizartearen elebitasun orekatua lortzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak definitzea, horretarako hainbat arlo jorratuz, besteak beste familia bidezko transmisioa, irakaskuntza, euskalduntze eta alfabetatzea, aisialdia eta kirola, liburugintza, etab.*

Zinegotziek horren ganean jakitun diran ezkerro, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamaika), erabagi hau hartu dau: **Euskerea Sustatzeko Ekintza Plan Estrategikoa (ESEP) onartzea.**

## **6.- 2018KO UDAL AURREKONTUAREN ALDARAZPENAREN 17. ESPEDIENTEA ONARTU, KREDITUEN TRANSFERENTZIAREN MODALIDADEAN, HALA BEHAR BALITZ.**

Amets Jauregizar alkate andreak, aldarazpenaren nondik norakoa azaldu dau, espedientearen edukia hauxe izanik:

**Kredituak transferitzen diren gastu partidak (bajak)**

Aurrekontu partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Gaur egun	Aldarazpenak	Behin betikoak
341.227.04.01	Polideportivo	200.000,00 €	-120.290,00 €	79.710,00 €
		<b>200.000,00 €</b>	<b>-120.290,00 €</b>	<b>79.710,00 €</b>

#### Handitzen diren kredituen gastu partidak (altak)

Aurrekontu partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Gaur egun	Aldarazpenak	Behin betikoak
920.227.01.22	Limpieza edificios publicos	70.168,01 €	17.540,00 €	87.708,01 €
920.227.07.02	Estudios y trabajos	49.918,45 €	12.450,00 €	62.368,45 €
333.226.06.11	Actividades kultur	80.482,50 €	48.000,00 €	128.482,50 €
338.226.06.02	Bakioko Jaiak	35.000,00 €	13.500,00 €	48.500,00 €
920.481.00.03	Cuotas Eudel	8.964,41 €	7.800,00 €	16.764,41 €
164.227.01.07	Cementerio	2.571,80	2.500,00 €	5.071,80 €
927. 221.04.04	Combustibles y carburantes maquinaria de obra	12.408,30	7.500,00 €	19.908,30 €
1532.210.00.98	Reparación y conservación vías publicas	40.000,00	11.000,00 €	51.000,00 €
		<b>299.513,47 €</b>	<b>120.290,00 €</b>	<b>419.803,47 €</b>

Amets Jauregizar alkate andreak, aldarazpen horri buruzko azalpenak emon dauzan ezkerero, bai eta informazio batzordean aztertu dan ezkerero be, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamika), erabagi hau hartu dau: **2018 ekitaldiko udal aurrekontuari buruzko 17. aldarazpen espedientea onartzea, beti be kreditu transferentziaren modalidadean.**

#### 7.- BARDINTASUN PLANA ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.

Amets Jauregizar alkate andreak honako hau adierazo dau:

*“Plan horren xedea da berdintasuna sustatzen eta lantzen duten politika publikoen garapena bermatzea. Berdintasuna zeharkakoa dela kontuan hartuz, udal planak udalerriko emakumezkoen gaur egungo egoera ikuskatu eta, zenbait gizarte kolektiborekin batera, egoera horri itzuri egiteko ekintzak ezarri ditu.*

*Bakiok berdintasun teknikaririk ez duenez gero, udal gobernuarentzat estrategikoa izan da ibilbide orri hau prestatzea, betiere Bakion gizonezko eta emakumezkoen arteko desberdintasunak betiketzen dituzten gizarte jarrerak eta portaerak identifikatzeko, genero ikuspegi eraikitzaile batetik abiatuta. Berdintasun plan hau izan gabe, nekeza izango litzateke pertsonen arteko berdintasunaren gaiari heltzea eta arlo hau jorratzea eta lantzea.*

*Plana berdintasun arloan indarrean dagoen legeria eta nazioarteko gomendioak kontuan hartuz garatu da. Egiturak betetzen du Emakundek argitaratutako toki planak prestatzeko gida. Plana prestatzeko prozedurak oinarri hartu du prozesu parte-hartzaile batean, eta ibilbide horretan azterketa dokumentalaz gain, zenbait lansai*

*egin dira gizarte agenteekin (emakumezkoen mugimendua, elkarteak, ikastetxea, ekonomia eta merkataritza sarea eta udal pertsonala), Bakion giltzarriak diren eragileen ikuskerak eta errealitateak ulertzen eta jasotzen dituen plana eraikin nahian.*

*Plana lau ardatzetan egituratzen da:*

- 1. Emakumezko eta gizonezkoen berdintasunaren aldeko gobernu egokia.*
- 2. Emakumezkoen ahalduntze politiko eta soziala eta balioen aldaketa.*
- 3. Bizitzaren iraunkortasuna bermatzeko gizarte antolakuntzaren eraldaketa.*
- 4. Indarkeriarik gabeko bizitzak.*

*Lehendabiziko ardatza erabili izana berrikuntza gisa nabarmendu behar da. Gobernu egokiak helburutzat dauka genero ikuspegia gardentasunean, herritarren partaidetzan, ikertzeko premian, administrazioen arteko lankidetzan eta politika publikoen ebaluazioaren praktikan (horiek hobetzeko eta helburuak lortze aldera birbideratzeko) jasotzen duen kultura baten bidez kudeatzea.*

*Azkenik, zehaztu beharra dago balioen aldaketa sustatzeko aurreneko berdintasun planaren printzipio gidariak honakoak direla:*

- Teoria eta praxi feminista, gizonezko eta emakumezkoen arteko desberdintasuna ulertzeko oinarri gisa.*
- Generoaren zeharkakotasuna, generoari buruzko gai guztiak politika eta programa publiko guztietan ager daitezen.*
- Emakumezkoen ahalduntzea, maskulinitate hegemonikoak desagerrarazteko helburuarekin.*
- Etengabeko lan prozesuak eta herritarren partaidetza eta inplikazioa, erabakiak hartzerakoan eragina izateko.*

*Plan honen bidez, Bakioko Udalak sistema patriarkalak sorrarazitako desberdintasunei aurre egiteko oinarriak ezarri nahi ditu.”*

Zinegotziek horren ganean jakitun diran ezkerreko, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaraturako zinegotzien aho batez (guztira hamaika), erabagi hau hartu dau: **Bardintasun Plana onartzea.**

**8.- “URKITZA IKASTETXEA” ESKOLAN SUKALDEA IPINTEKO, IKASLEEN GURASO ELKARTEAK EUSKO JAURLARITZAKO**



## **HEZKUNTZA SAILARI ZUZENDUTAKO ESKABIDEARI ONERETXIA EMON.**

Ametz Jauregizar alkate andreak, “Urkitza Ikastetxea” eskolako Ikasleen Guraso Elkarateak eta eskolako zuzendaritzak sinatutako 2018ko abenduaren 13ko idatzia irakurri du. Bertan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari sukaldean ipintzeko eskaria egiten zaio, eskabide horren zergatia arrazoituz.

Horrenbestez, Udalaren Osoko Bilkurak, korporazioa osotzen duten zinegotzi guztien aho batez (EAJ-PNV taldeko 5 zinegotziak, EH Bildu taldeko 4 zinegotziak eta BAKIOBAI taldeko 2 zinegotziak), erabaki hau hartu du:

**“Urkitza ikastetxea” eskolan sukaldean ipintzeko, Ikasleen Guraso Elkarateak eta eskolako zuzendaritzak sinatutako 2018.12.13ko idatziari oniritzia ematea.**

**Alkate andreari eskubidea ematea, Bakioko Udalaren izenean Hezkuntza Sailean aurkeztu beharreko idatzi hori sinatzeko.**

## **9.- NAGUSIENTZAKO “GURE ETXEA” LOKALA KONPONTZEKO ERABAGIA HARTU.**

Lehenengo eta behin, Begoña Abio zinegotziak, EAJ-PNV udal taldeak gai horren harira abenduaren 14an aurkeztutako idatzia irakurri dau, horren edukia hauxe izanik:

### Justifikazioa:

*Pertsona nagusi asko “Gure Etxea”ko lokaletan batzen dira eta azkeneko urteetan lokal honeek ez dagoz behar diren modura. Hezetasun asko eta egoera kaskarra orokorrean.*

### Proposamena:

*Udalbatza honeri proposatzen deusagu, nagusientzako aipatutako “Gure Etxea” lokalen konponketa lehen bait lehen egitea. Horretarako, Nagusien Alkatea, Udal koordinazio batzordearekin batera prozesu parte-hartzailea eratzea nagusien komunitatearen desioak eta beharrak islatzen dabezen espazio lortzeko.*

Ametz Jauregizar alkate andreak, ados dago konponketa obrak egitea beharrezkoa dala, baina, argi itxi gure izan dau hauxe:

*Indarrean dagoan arau subsidiarioetan “Gure Etxea” eraikina ordenazino kanpo izendatuta dago eta izendapen horrek eraikina behera botatea ahalbideratzen dau, baina etorkizun hurbilean indarrean sartuko dan herriko urigintzako plangintzaren Aurrerapen Agirian, eraikina zutik mantentzea proposatzen da, horretarako arrazoiak bi diralarik, batetik, eraikinak lehen-lehen herriko eskola erabilera izan eban, eta, beraz, ondasun horrek Bakioko herriaren historiaren barruan daukan garrantzia*

*kontuan hartu beharrekoa da; eta, bestetik, nagusiek euren aisialdirako beste lokalik ez dauken ezkerre, ez da zentsuzkoa eraikina ordenazino kanpo egoeran segitzea. Beraz, ildo bi horreek kontuan hartuz, uste dogu urigintzako plangintza barrian eraikina zerbitzu publiko erabilerarako gorde beharko dala.*

Hortaz, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamaika), erabagi hau hartu dau: **nagusientzako “GURE ETXEA” lokala konpontzeko aldeko konpromisoa hartzea.**

## **10.- HERRIKO AUZOETAKO BIDEEN MANTENTZE ETA KONPONKETAK EGITEKO ERABAGIA HARTU.**

Atoan, Amets Jauregizar alkate andreak, dino hainbat herritarren eskaerari jaramon eginaz, helburua da egoera txarren dagozan herriko auzoetako bideak konpontzea.

Segiduan, Aitor Apraiz zinegotziak, EAJ-PNV udal taldeak gai horren harira abenduaren 14an aurkeztutako idatzia irakurri dau, horren edukia hauexek izanik:

### Justifikazioa

*Bakioko auzo ezbardinetako hainbat bide eta sarrera dagoz mantenu beharrean, bedarrak ebegi, arbolen inausketa, bide publikoetara urtetan dabon lorategi pribatuen zuhaixkak, etabar. Auzokideen bizirik kalidadea hobetzeko beharrezkoa eta ahal bait arinen egin behar diren lanak dira.*

### Proposamena:

*Udaleko osoko bilkurak, alkatetzari aldarrikatzen deutso, hilebeteko epean, auzo ezberdinetako bide eta sarrerak hobetzeko konpokatutako helduen deuson egitasmo integral bat egin deien.*

Alkate andreak dino:

*Herri bideen mantenimendua udalarena dana argi daukagu eta zeregin horrerik 2015. urtetik gabiltza ekin nahian. Ordutik on, herriko lan-taldea oso lanpetuta dabil, ze kanpoko enpresek egiten ebezan herriko behar batzuk (lore zaintza eta kaleen garbitasuna) lan-taldeak bere gain hartu ebezan eta; beraz, horren ondorioz ez dau izan astirik herri bideen mantenimenduaren jarraipen zehatza egiteko; edozelan be, beharrok kanpoko enpresa bateri be esleitu ahal jakoz. Dana dala, udal aparejadorea aspalditik dabil herri bideen egoerari buruzko informazioa batzen, eta, daborduko, zehaztuta dauka zeintzuk bideetan egin behar diren mantentze lanak eta lanon nondik-norakoa, beti be herri bide bakoetaren egoeraren arabera.*

Hortaz, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamaika), erabagi hau hartu dau: **herriko auzoetako bideen mantentze eta konponketak egiteko aldeko konpromisoa hartzea.**

## **11.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Aitor Apraiz zinegotziak, EAJ-PNV taldearen izenean, galdera hau egin dau: Bakioko Udalbatzak 2018.11.29an erabagi eban Kiroleta Club alkartearen, udal kiroldegiko kontzesinodunaren eta Bakioko Udalaren arteko lankidetza hitzarmena onartzea; baina, ez dakigu agiri hori sinatu dan ala ez.

Ametz Jauregizar alkate andreak erantzun deutso esanez hitzarmenaren parte-hartzaile garrantzitsuenak Kiroleta Club eta udal kiroldegiko kontzesinoduna dirala, batez be, hitzarmenak eurei eragiten deuselako; eta, udala kiroldegiaren jaubea dan aldetik, hitzarmena sinatu beharra daukala, beste barik. Dana dala, jasotako informazioaren arabera, itxaropena dala interesatu horreek hitzarmena datorren urtarrilean sinatzea.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate andreak batzar hau 19:55ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau udal idazkariak.

Alkate andrea

Idazkaria